

# IKASLEEN TXOKOA - Hernani Institutua

## AHT, hemendik nahi d


### Tunel eta Burni-bide artean / II

Lierni Mateos

III / AMETS ARANBURU:

«Gure helburua, Hernani eta inguruetan egiten ari diren makroproiektu horien kontra egitea da»

Lierni Mateos



ANTTON ZABALA

Eskalada bizimodu / IV

Irati Sarasua

IV / Gaztetxea topaleku bizia

Irati Sarasua

IV / Egileen argazkia

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## HERNANI INSTITUTUA

# Tunel eta burni-bide artean

HAINBATETAN entzun ditugu Abiadura Handiko Trenari buruzko topikoak, kontrako oihuak eta aldeko iragarkiak. Baina, ba al dakigu zer den benetan tren hau? Nondik nora doan? Nor den benetako kaltetua? Eta nork eskuratzen duen onura? Gai honen inguruko galdera asko eta erantzun gutxi.

Abiadura Handiko Trena, Euskal Herrian "Y" handi baten itxura hartzen duen 443 km luzerako abiadura handiko trenbide sare bat da, erdigunean Gipuzkoa duelarik eta beste hainbat lotura Dax, Gasteiz, Bilbo eta Zaragozarekin. Euskal Herria Europako Merkatuaren integrazioarekiko igarobide bihurtu nahi da.

Obra handi honen inguruan, bi ideia nagusi bereizten dira; alde batetik, AHTren aurkako jarrera dago. Hauek, sekretismoa eta kalte konpon ezinak salatzen dituzte batez ere. Bestalde, aldeko iritzia dago, non, garapen ekonomikoa, aurrerakuntza eta Europarako bidea azpimarratzen diren. Nolanahi ere, badirudi, egitasmoa aurrera doala, baina oraindik ez dira trazatua eta bideak zehaztu.

### Naturan eta landa eremuetan eragingo dituen kalteak

Honetaz gain, aipagarria da euskal "Y"-k gizartean eta baita nekazal eremuetan ere sortuko duen inpaktu eta kaltea. Izan ere, trenak nekazal, lur eta baso eremuetako 440 hektareen suntsipena ekarriko lituzke, eraikitzeko orduan hartu beharreko babes neurriak kontuan izan gabe.

Hernani eta ingurura begiratuz gero, Urumea ibaia eta ibaiertzak, interes ekologikoko gune gisa izendatuta daudenak, erabateko suntsiketa jasango dute Hernanitik Martutenera.

Kalte eta onurez gain, honen inguruan sortzen diren eztabaidetan, maiz agertzen da ekonomiaren arazoa. Euskal Herriarentzat aurrerapen handia izango da, baina erabiliko duen jende kopurua mugatua izango da. Izan ere, bidaia baten prezioa ez

da edonorentzat ordain erraza izango. Horretaz gain, Abiadura Handiko Trenaren aurkakoek salatzen dutena: gutxiengo bantentzat ekarriko duen interes eta onura ekonomikoa izango da. Baita, *euskal eskalestri* hau obra antisozial bat izango dela.

Gai honen inguruan dihardutenak, alde edo kontra, urteak daramatzate beren ideia eta iritzia aldarrikatzen.

Gai honetan ari diren herritarrentzat eta udalarentzat kezagarriena da Hernani-Urnieta arteko trazatuaren datu zehatzik ez izatea

Kontrakoez hainbat ekintza antolatu dituzte orain arte, hauen helburu nagusia herria kontzientziatu eta denen artean Abiadura Handiko Trenaren kontra gogor egitea da, etorki-



zun gertu batean eraiki ez dezaten. Aldekoek berriz, kalteak alde batera utzi eta ekonomiaren hobekuntzak eta abiadura baka-rik aipatzen dituzte.

Hala ere, oraindik, duda asko, eta horiek asetuko dituenik ez. Edozein modutan ere, sarraski larri hau gehien pairatuko duena, ama natura izango da.

### AHT Hernanin ere

Abiadura Handiko Trena Hernanitik ere igarotzen da. Hau, Urnieta-Hernani trazatua izango da, eta orain arte hainbat arazo eragin ditu ibilbide zehatzik finkatuta ez dagoelako. Hala ere, gai honetan diharduten herritarrentzat eta baita udalarentzat berarentzat ere, kezagarriena, Hernani-Urnieta

bidearen trazatuaren datu zehatzik ez izatea da.

Hernaniko Udalari ere, obra honen inguruan sortzen diren galderak erantzutea zaila egiten zaio, ezinezkoa ez bada. Udalak dituen informazio eta datuak urriak eta eskasak izan arren, Eusko Jaurlaritzak ahalbidetu izan dizkion mapa edo planoak zaharrak eta baliogabeak dira.

Hernaniko Udalak, duela lau hilabete, Eusko Jaurlaritzarekin gai honen inguruko bilera bat izan zuen, gorago esandako Urnieta-Hernani trazatuko arazoak gora behera. Bilera hartan udalak eskatu zituen datu eta azalpenak ez dira oraindik iritsi. Horrez gain, 2008ko urtarrila zen, oinarritzko proiektua iristeko epea. Hiru hilabeteren ondoren, ez du jaso, eta azalpenak eskatzean, aitzakiak gora eta erantzun eta jarrera txarrak behera.

### AHTren aurkako Hernaniko Taldea

Hernanin, bada Abiadura Handiko Trenaren aurka egiteko bildu eta ekintzak gauzatzen dituen talde bat. Hauek, AHTaz gain, beste makroproiektuen aurka ere egiten dute, hala ere, momentu honetan trenari zuzenduak daude. Beraien lehen helburua, nolabait, herriko jendea, obra honek ekarriko dituen arazo eta kalteez kontzientziaztea da. Izan ere, taldekideen iritziz, askok oraindik ez dakite zehazki zer den, beraien herritik pasatzen den, zein eragin izango duen... Honela, trenak ekarriko dituen ondorioak jakinarazteko hainbat ekintza gauzatu dituzte 2007ko maiatza inguruan elkar-tu zirenetik. Horien artean, mendi martxa, manifestazioak, bideo emanaldiak... antolatu dituzte. ||



Urumea ibaiertza izango da toki kaltetuenetako bat.

# ikasleen txokoa



## AMETS ARANBURU:

«Gure helburua, Hernani eta inguruetan egiten ari diren makroproiektu horien kontra egitea da»

**AMETS, Abiadura Handiko Trenaren aurkako Hernaniko taldeko kide da. Berarekin bildu eta talde honek eta berak pertsonalki Euskal "Y"-ren aurrean duten iritzi eta ikuspegiak hitz egin digu. Ametsek jendea animatzen du asteazkenetako bileretan parte hartzeko, baita antolatuko dituzten ekintzetan ere.**

**Noiz sortu zen Abiadura Handiko Trenaren aurkako Hernaniko taldea?**

Trenaren aurkako mugimendua aspaldidanik ari da lanean. Hernanin, lehengo urteko maiatza inguruan hasi ginen berriro biltzen eta zein bide hartu pentsatzen hasi ginen... baina esan daiteke, nolabait, talde izaera hori orain hartu dugula. Izan ere, zaila izan da bildu eta aurrera egitea.

**Zein da taldearen helburua?**

Batez ere, orain, trenaren aurkako ekintzetan dihardugu, baina gure helburua, Hernani eta inguruetan egiten ari diren makroproiektu horien kontra egitea da.

**AHTaren aurka egiten duzue, baina zein helburu zehatzekin?**

Berez, helburua, trena ez egitea izango litzateke. Baina,

ikusien genuen, Hernani mailan ez zegoela mugimendurik horren aurka eta zerbait egin beharra zegoela. Azkenean, AHT hor dago, eta lehenengo helburua, jendea trenak eragingo duen inpaktuaz kontzientziatu, jakinarazi eta informatzea da.

«Askok ez dakite zehazki Abiadura Handiko Trena zer den eta nondik nora doan»

**Beste hainbat herritan ere badaude proiektu honen aurkako taldeak, horiekin harremanik ba al duzue?**

Gehienbat, Andoaingo eta Astigarragakoekin dugu harremana, nolabait, eskualde mailan ere lana egiten hasteko. Hala ere, uste dugu, herri mailan indartu eta finkatuak gaudenean, errazagoa izango dela eskualde mailan lan egitea.

**Orain arteko ibilbidea nolakoa izan da?**

Nahiko ibilbide mantsoa izan da, hasi ginenean, lehenengo gauza zer egin nahi genuen pentsatzea izan zen. Gero, panfleto batzuk atera eta etxe-etxe banatu genituen, nolabait, jakinarazi eta kon-

tzientziatzeko. Informazioa zabaldu nahian, antolatzen ziren manifestazioen kartelak egiten ere hasi ginen. Gainera, mendi martxa bat, gaztetxearekin batera kalejira bat... antolatu genituen.

**Eta orain, zertan ari zarete?**

Momentu honetan, ostegunetan, Kaxkoko tabernetan bideo emanaldi ezberdinak eskaintzen ari gara.

**Gerora begira, zer asmo duzue?**

Bideo emanaldiekin jarraitu nahi dugu, beste sektoreetara iristeko asmoz. Gainera, festa antzeko bat egiteko ere prestatzen ari gara, eta Euskal Herrian dabilen karabana ibiltaria dela eta zerbait egiteko asmoa dugu. Apirilean berriz, aste betez, Hernaniko kultur etxean, ekintza ezberdinak egiteko asmoa dugu, gure ideiak herritarrengaino iritsi daitezen.

**Herrian, jendearen artean, zein iritzi entzuten dira?**

Bi iritzi topa ditzakezu; abiadura handiko trenaren aldekoak eta aurkakoak. Askok, hala ere, ez dakite zehazki zer den eta nondik nora doan. Beste batzuek berriz, trenaren azkartasuna aipatzen dute.

**Pertsonalki zein iritzi duzu?**

Nahia, trena ez egitea da. Azken finean, garbi ikusten da atzetik interes ekonomikoa dagoela. Nire ustez, obrak

egiten hasten direnean, honen aurkako mugimendu bat sortu beharko da. Eta esperantzaz, ba honen aurka lanean hari garen denon berdina. ||



Amets Aranburu.

28

zenbakia

ikasleen txokoa

## Eskalada bizimodu

**ANTTON Zabala hernaniar gazteak urte gutxi eskalatzen eraman arren, bide ederra egin du eskaladaren munduan. Gaur egun arte, besteen artean, Euskal Herriko Eskalda Txapelketa 4 aldiz irabazi du, baita Espainiako Txapelketa bat ere. Horrez gain, Munduko Txapelketan 27. postua lortu zuen eta Europako Kopako proba batean, berriz, 19. izan zen. Herriak etorkizun handiko gaztea duela esan genezake.**

### Noiz eta nola hasi zinen eskalatzen?


Duela 4 urte edo 4 urte eta erdi inguru izan zen, osaba eskalada munduan zebilen eta bere eraginaren ondorio izan zela esan dezaket. Hatzi Klimbers Hernaniko rokodromoan hasi nintzen eskalatzen, eta denbora aurrera zioan heinean, txapelketa ezberdinetara aurkeztu eta emaitza onak egin nituen. Honen ondorioz, Fortuna Eskalada Taldean hartu ninduten, eta, geroztik bertan dihardut. Hasieran, denbora pasa moduan hasi nintzen kirolaz disfrutatzen, baina denborak aurrera egin ahala, ordura arte egin nuen kirola (futbola) eskaladagatik uztea erabaki nuen. Gaur egun, astean 7 ordu inguru ematen ditut entrenamenduak egiten. Gainera, gaztetxoenei ere irakasten diet.

**Txapelketetan, lehenik eta behin, paretetako bideak ikusten dituzue. 6 minutu inguru bisualizatzeko lanetan igaro ondoren, aislamendu gelara joaten zarete eta bertan zuen txandari itxaron behar izaten diozue. Nola bizitzen da hori?**

Ni bidea ikustera ateratzen naizenean ez naiz oso urduri ateratzen; urduritasuna eskalatzen hasten naizenean bizi dut. Entrenatu duzun guztia eta egin dezakezun guztia paretara batean minutu gutxitan erakutsi behar duzu. Gauzak gaizki egin ezker, ordura arteko lana zertarako egin duzun galdetzen diozu zeure buruari. Baina, lana ondo egitean, poza adierazi ezina da. Ondorioz, une horietan bizitzen den sentsazioa ezin dut hitzekin azaldu.

### Harkaitza edo rokodromoak duzu gustuko?

Eskalatzailer gehienoi bezala, niri harkaitza gehiago gustatzen zait. Pareta eskalatzen duzunean, aire librean zaude; ez zaude zulo batean sartuta, mendiaz gozatzen duzu. Hala ere, rokodromoak bere aban-



Antton Zabala

tailak ditu: batetik, eguraldi txarra egiten duenean, geure gustuko kirolaz gozatzeko aukera ematen digu. Eta bestetik, indarra hartzeko lagungarria dela azaldu beharra dut.

### Nolako bideak dituzu gustuko?

Niri, erresistentzia bideak gustatzen zaizkit. Oso luzeak direnekin ez naiz eroso sentitzen, ezta oso motzak direnekin ere. Tarteko hori da nik atsegin dudana.

### Gaur egun zertarako prestatzen ari zara?

Euskal Herriko Txapelketa dut buruan, lehenago esan dizudan bezala, zerbait irabazi ahal izateko gogor lan egin beharra dago. Hala ere, lana eginda ere, postu on bat lortzea zaila da, jendea oso prestatua baitago.

### Zer da "Psicobloc"-a?

*Psicobloca* Espainiako Estatuan egiteko leku bakarra dago: Mallorca. Bertan, duela

hilabete batzuk egon nintzen. Itsaslabarretan egiten da, 20 metro inguruko garaiera duen horma batean. Soka gabe egiten denez, erortzean uretara zoaz zuzenean. Ohiko eskaladarekin desberdintasun itzelak ditu arrazoi horregatik. Sentsazio ezberdinak bizitzen dira bertan.

### Zein da gehien gustatu zaizun pareta?

Eulateko *Kolpez kolpe* da orain arte gehien gustatu zaidana. Bide hau 2007eko ekainaren erdialdean egin nuen eta 8b graduko zailtasuneko da.

### Hemendik aurrera, nola ikusten duzu zeure burua?

Egunero lan eta entrenamendu gehiago egin beharko dut, eta ahal dudana neurrian, maila igo. Gaur egun, senior mailan nagoenez, zailagoa da postu onak lortzea, besteak beste, maila handia dagoelako. Patxi Usobiagak ere, munduko txapelkunak, seniorretan parte hartzen du, adibidez. ■

## Gaztetxea topaleku bizia

GAZTETXEARI buruzko berri anitz entzun ditugu azken urteotan. Hasteko eta behin, Gaztetxe baten helburua, izenak dioten bezalaxe, gazteak elkartzeko lekua izatea da. Herri ezberdinetan aurrera aterata den proiektua da orain gure herrian martxan dagoena.

Badira urte batzuk gure herrian Gaztetxe bat egiteko egitasmoa sortu zela. Eskarmentu hau duela hamar bat urte ingurukoa da. Garai hartan hutsik zegoen *Paradorea* izan zen gazteen elkargune; ondoren, herriko musika taldeen entseguetarako lokal izatera pasa zen, baina eraikinak su hartu zuen eta herria Gaztetxerik gabe geratu zen.

Urteen poderioz, Gazte Asanbladak berriro ere Gaztetxe bat sortzeari ekin zion. Duela bi urte inguru, Gazte Txabola altxatu zuten herriko gazteek, aurreko Gaztetxea zegoen lekuan hain justu. Baina, egun batetik bestera, Udaleko langileek, udalaren aginduak jarraituz, bota egin zuten. Ondorioz, bertako gazteek kiroldegian dagoen lokala hartu zuten bilgune modura. Hau gertatu baino lehenago, gazteek ekintza ezberdinak egin zituzten, baina, ekintza hauen partaideek eremu propiorik ez zuten izan, egoera hori arazo bihurtu zen.

### Udalaren iritzia, ezaguna

Udalak guzti honi buruz duen ikuspuntua ezezaguna da Hernaniar guztiontzat. Usoa Barrutiabengoa zinegotziak

azaldu digu Udalak gai hau ondo bideratuta egotea nahi duela, eta Gaztetxea aurrera aterata ahal izateko, gauzak ondo egin behar direla.

Beste alde batetik, zinegotziak gehitu digu gazteentzako leku bat izatearen aldekoa dela Udala: "Gazteak elkartzeko leku bat izatea gustatuko litzaiguke, beren harremanak aurrera eramateko, dituzten helburuak indarrean jartzeko... Bai, geure herriarentzat gazteak bertan ibiltzea oso aberasgarria da".

Egun, Gaztetxe proiektua abian da. Hori lortzeko gazteek eskaera bat egin behar diote Udalari, eta ondoren, bertako alderdien esku geratuko da erabakia. Eskaera onartzen bada, gazteak lokala garbitzeaz eta bertako obrak egiteaz arduratu beharko lukete. Guzti honetarako Udalak laguntzeko prestutasuna azaldu digu.

Argi dago bi aldeei (gazteei zein Udalari) Hernaniko gazteek garai batean bizi izan zuten harremana berreskuratzea gustatuko litzaiekeela. Barrutiabengoa iritziak, gaur egun herria lagun taldeetan osatua dago: "Gaztetxe batek, azken batean, herriko gazteak elkartzeko du helburu. Beraien artean sortzen den giroak gainera herriari bizi-poza emango lioke".

Gazteek Hernanin Gaztetxe bat izatea nahiko lukete eta Udala gazteek beren aisia eta harremanetarako espazio bat izatearen aldekoa da; helburu hauek uztagarriak dira eta au-

Gaurko alearen egileak:



Lierni Mateos eta Irati Sarasua.